

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Udalerriko gizarte eta kultura elkarteentzako 2025erako dirulaguntzen oinarriak eta deialdia

BDNS (Identif.): 843031.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/-convocatoria/843031>).

Xedea

Deialdi honen xedea da elkarteek udal mugartearen barruan sustatutako gizarte eta kultura jarduerak edo udalerriarentzat interesa dutela iritzi ahal zaien jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzea, aurrekontu mugen barruan.

Onuradunak

Irabazteko xederik gabeko elkarteak izan ahal izango dira dirulaguntza hauen onuradunak, baldin eta sozietatearen egoitza Legution badaukate eta legeak ezarritakoaren arabera eratu eta erregistratu badira.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Kultura elkarteek proposatutako kultura programen barruko jardueren antolaketatik sortutako gastuak, haiek kokatuta dauden udalerri edo populazioari bideratuta badaude eta 2025. urtean garatu beharreko egutegi zehatza badaukate.

Balioespen irizpideak

- Proiektuaren kalitatea.
- Proposamenaren bideragarritasuna.
- Euskararen zabalkundeari egiten zaion ekarpena.
- Beste erakunde batzuetan eskaera egin izana egiaztatzea.
- Berdintasuna eta gizarteratzea sustatzea.

Dirulaguntzaren zenbatekoa

Diruz lagunduko den gehienezko kopurua aurkeztutako aurrekontuaren eguneko 80 izango da.

Eskaerak eta dokumentazioa

Dirulaguntzak lortu nahi dituzten elkarteek eredu formalizatuan aurkeztu beharko dituzte eskabideak Legutioiko Udalaren egoitza elektronikoan (www.legutio.eus).

Legutio, 2025eko ekainaren 30a

Alkatea

NEREA BENGÓA GARCÍA DE CORTÁZAR